

2307/2019 EBAZPENA, abenduaren 12koa, BILBAO-BASURTOKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUko zuzendari gerentearena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Lehen Mailako Arretako Santutxu-Solokoetxeko unitateburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

BILBAO-BASURTOKO ESIan Lehen Mailako Arretako Santutxu-Solokoetxeko unitateburu lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Gerentzia Zuzendaritza honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, oinarrien arabera:

OINARRIAK:

1.- Parte hartzeko betekizunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a).- Lotura finkoko langilea izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontrataduna) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan eta plaza jabetzan edukitzea A1/B1 lanbide-taldean.

b).- Titulu hauetakoren bat izatea:

b.1- Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna izatea, Familiako eta Komunitateko Medikuntzako espezialitatearekin edo Medikuntza Orokorreko Medikuen eginkizunak betetzeko ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplomaren batekin, uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren (Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen) I: Eranskinean aurreikusitakoaren arabera; edo Pediatrian espezialitatea izatea.

b.2- Erizaintzako unibertsitate-diploma.

c).- Lan-esperientzia: gutxienez, 4 urteko esperientzia izan beharko dute, A1/B1 lanbide-taldeetako zereginetan.

2.- Aintzat hartuko diren merituak:

Baloratu egingo da dagokion Lehen Mailako Arretako Unitatea kudeatzeko Memoria Proiektua.

3.- Euskararen ezagutza:

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBAO-BASURTOKO ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzara aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: Montevideo etorbidea 18, Bilbo, 48013 posta-kodea, 10 egun balioduneko epean, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera, Bilbao-Basurtoko ESIko (Basurtoko Unibertsitate Ospitaleko Gobernu Pabilioa) Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Lehen Mailako Arretako Unitateko Memoria Proiektua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

5.- Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko. Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Epaimahaiak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.- Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAAAn argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta gure intranetean eta Osakidetzako web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekursoak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion Iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2019ko abenduaren 12an.

BILBAO-BASURTOKO ESIKO ZUZENDARI GERENTEA
Eskuordetzaz, BILBAO-BASURTOKO ESIko Pertsonaleko zuzendaria
(ekainaren 20ko 1556/2017 Ebazpena)



Iz.: AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO